

Irakurri eta osatu Karolinak kontatu duen bizipena. Horretarako, erabili eskeintzen zaizkizun aditzak. *Lee y completa la vivencia que ha contado Karolina. Para ello, utiliza los verbos que se te ofrecen.*

Duela urte asko, itsas bidaia egin genuen Mediterraneoan zehar. Lehenengo egunetan oso ondo pasatu genuen, baina bosgarren egunean, dena okertu zen.



Goiz hartan, gure gelan; oso ondo gogoratzen dut. Bat-batean, zarata arraro bat entzun genuen, eta dena mugitzen hasi zen. Hasieran, ez ginen kezkatu, baina berriro beste zarata bat entzun genuen, eta lurrera erori ginen.

Beldurtuta, korridorera atera ginen, eta denan urez beteta Jendea korrika; pertsona batzuk irteerara eta beste batzuk noraezean Itsasontziko laguntzaileak ere urduri eta megafonoz harrera-lekura joateko

Harrera-lekura iritsi ginenean, laguntzaileak salbamendu-jakak Orduan, itsasontziak beste mugimendu bat egin zuen, eta ur gehiago sartu zen; itsasontzia eta korrika kanpora atera ginen.

Kanpoan, oso une larria pasatu nuen. Salbamendu-txalupak gure bila, eta denak txalupetara igo nahi genuen. Orduan, jendea bultzaka hasi zen, eta ni uretara erori nintzen. Ez zitzaidan ezer gertatu, baina oso gaizki pasatu nuen.

Orain esan baieztapen hauek egia ala gezurra diren. Zuzendu GEZURRA direnak. *Ahora di si las siguientes afirmaciones son verdaderas o falsas. Corrige las que son FALSAS.*

- a. Zarata arraroa entzun zutenean, kanpoaldean zeuden.
- b. Korridorera atera zirenean, korridorea maletaz beteta zegoen.
- c. Korridorean jendea motel zebilen.
- d. Pertsona batzuk kafea hartzera zihoazen.
- e. Beste pertsona batzuk adi-adi zebiltzan.
- f. Itsasontziko laguntzaileak lasai-lasai zeuden.